



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2007

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EAeren Administrazio Orokorraren 2007ko ekitaldiaren kontuen fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2007ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Epaitegiak adierazi du Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2007ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dutela.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Eusko Jaurlaritzaren jardueraz; alabaina, ondotik adierazitako salbuespenak jaso ditu:

- Ekitaldirako oniritzitako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek 1/1994 Legegintzazko Dekretuaren 57. artikulua urratzen du.
- Obren kontratazio administratiboari dagokionez, HKEEk aztertu dituen espedienteetan ondoko legezko ez betetze hauek azaleratu dira:
 - Guztira 1,3 milioi euro egin duten gastuak, hainbat sailtako 22 eragiketari dagozkionak, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe esleitu dira, 19 kasutan horien xedea zatikatu baita, lehiaketa publikoa deitzeko mugak banaka gainditzea eragotziz, eta gainerako hiru kasuetan zuzeneko esleipena egitea bideratzen duten mugak gaindituz.
 - Bi obra kontratutan hainbat aldakuntza egin dira eta horien gainean Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena idatzi zuen; honenbestez, Gobernu Kontseiluaren Akordio bitartez baliokidetu behar izan zituzten, administrazio prozedura oroz kanpo egin baitziren. Honez gain, kontratu hauetan beretan, egindako aldakuntzek guztira esleipen prezioa % 32 eta % 68 gehitzea ekarri dute, kontratuaren xedea larriki eraldatzen dutenak.



- Halaber, Gobernuak -aurreko bi aldakuntzak barne hartuta- arautegian finkatutako prozedurari jarraiki, 16,6 milioi euroko eragiketak baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Kopuru honetatik 15,9 milioi euro obra, hornidura eta laguntza teknikoei dagozkie eta 0,7 mila euro, berriz, dirulaguntzei.
- Gizarteratze enpresak sortu eta eusteko diru-laguntza lerro batean, ezarritako balorazio irizpideak ez dira objektiboak eta horien ponderazioa ez dago garbi zehaztua.
- Gobernu Kontseiluak diru-laguntzei buruzko araudiaren legezko betekizunak betetzen ez zituzten bi diru-laguntza zuzen eman ditu.
- Hainbat sailetan 420.000 euroko ordainagiriak azaleratu dira, Sailaren kudeaketaren beraren egitekoak garatu dituzten 9 pertsoneri dagozkienak; egiteko horiek, ordea, administrazioaren beraren langileriak gauzatu behar zituzkeen.

Barne Kontrolerako Sistemei eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, langileria, kontratazioa, diru laguntzak, kontabilizazioa, e.a. HKEEk hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten dienak, esaterako, Lan Postuen Zerrenden edukia, Kontratuen erregistro eza, kontratazioari eta laguntzak emateari dagozkion alderdi formalak, edota gastua lurraldeka banatzeko irizpideak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk Diruzaintza Geldikinak izan duen goraldia, ekitaldiko sarreren % 12 egin duena, eta zorpetzea 600 milioi euro baino gehiago murriztu izana azpimarratu ditu.